

BIME CITY JAIALDIAK 40 KONTZERTU ETA DOAKO JARDUERA BAINO GEHIAGO IRAGARRI DITU BILBOKO ERDIGUNEAN, ETA 20 HIZLARI BERRI AURKEZTU DITUZTE BIME PRO BILTZARRERAKO

BIME CITY jaialdiaren bosgarren edizioan 12 herrialdetako 40 artista baino gehiago etorriko dira Bilboko erdiguneko 11 aretotan zuzeneko emanaldiak egitera

BIME CITY jaialdiaren bosgarren edizio honetan, Bilbo hiria ekitaldiz gainezka jarriko da, **40 emanaldi eta doako jarduera baino gehiago izango baitira hiriburuko 11 aretotan. Urriaren 30ean eta 31n**, Hiria bor-borka jarriko da, berriro ere, musikarekin, Europako eta Latinoamerikako talentu berriak, etorkizun handiko talentuak bertan izango baitira.

Aurtengoan ere, musikaren arloko profesionalak elkartuko dira BIME PROn, eta hurrengo eguneko BIME LIVE jaialdiaren atariko moduan, **BIME CITY** jaialdiak onenetan onena eskainiko du berriro ere, Bilboko erdigunean zuzeneko musikarik onenaz gozatu nahi duen ororentzat. Nazioan eta nazioartean gero eta indar handiagoa lortzen ari diren talentuak etorriko dira 12 herrialdetatik, eta Bilboko 11 areto ikonikotan egingo dituzte emanaldiak, BIMEren eskaintza bilbotarrei ezagutarazteko; eta, bide batez, etorkizunean Europako jaialdi garrantzitsuenetako line up guztietan egongo diren taldeentzat erakusleihen ere izango da.

BIME CITY jaialdiak **Bilboko Udalaren babespena** du, eta honako artista hauek bilduko dira aurtengoan: **El Columpio Asesino*** nafarrak, LP berriaren grabaketa-lanak egun batez alde batera utzi eta Bilbora etorriko dira single berria aurkeztera; Venezuelako **Desorden Público** ska talde historikoa; **Nøgen**, **Liher**, **Grande Days**, **Hakima Flissi** eta **Joseba Irazoki eta Lagunak** talde euskaldunak, edo Espainiatik, Portugaldik, Norvegiatik, Holandatik, Suediatik edo Luxenburgotik datozen taldeak: **La Habitación Roja**, **Lina & Raúl Refree**, **Cave Story**, **Beverly Kills**, **Someone**, **Primas Hermanas**, **Edsun**, **Otha**, **Yawners** edo **Hickeys**, besteak beste.

Talde bakoitzak 40 minutu izango ditu egiten dakiena bai publiko profesionalari, bai musikazaleei erakusteko, Bilboko areto esanguratsuenetan betiere: Kafe Antzokia, Stage Live, Shake!, Muelle, La Ribera, Azkena, Sala BBK, Bilborock, Coppola eta Azkuna Zentroa.

**El Columpio Asesinok Sala BBK-an eskainiko duen kontzertura joan nahi duen edonork, gonbidapen bat eskatu beharko du aurretiztik. Gonbidapena urriaren 21, 12etatik aurrera lortu daiteke www.bime.net webgunean.*

MUSIKAZ GAINDI: HAURRENTZAKO JARDUERAK, DOKUMENTALEN EMANALDIAK ETA ERAKUSKETAK

Iazko ildoari jarraikiz, BIME CITYk bide berriak urratu ditu ikus-entzule guztientzako moduko askotariko proposamen artistikoak eskaini ahal izateko. Lehen aldiz, familia-giroko jarduerak egiteko gune berezia izango da, etxeko txikienek musikaz, arteaz eta teknologiaz modu dibertigarrian gozatu ahal izan dezaten. Era berean, *'In The Middle of Norway'* dokumentalaren emanaldia egingo da; La Habitación Roja taldeko kideak dira protagonista, eta emanaldiarekin batera kontzertu akustiko bat eskaintzeaz gain, taldekideei galderak egiteko aukera ere izango da; halaber, erakusketa gune bat izango da Basquery-n, arte bisual eta kontzeptuala indarra hartzen ari diren teknologietan eta ingurune murgiltzaileetan aplikatzen duten artelanak ikusgai jartzeko.

ROZALEN, DOMINIQUE KULLING eta LAURA DAVIDSON, BIME PRO EKITALDIAREN PROGRAMAN SARTU DIREN 20 HIZLARI BERRIEN ARTEAN

BIME PRO ekitaldirako izen berriak iragartzen ari dira oraindik ere. Oraingoan, 20 izen gehiago gehitu zaizkio programazio orokorrari. Izen-zerrenda horren buru, Espainiako abeslari eta egileen arteko ahots garrantzitsuenetako bat: **Rozalén**; **Dominique Kulling**, BMGko Continental Europe Repertoire & Marketing arloko presidenteorde exekutiboa; **John Broomhall**, konpositorea eta Game Music Connect bideo-joko enpresaren sortzaileetako bat; **Ady Harley**, Facebook eta Instagram sare sozialetako Head Label Partnership Latin America; edo **Laura Davidson**, AEG European Festivals-eko booking-eko taldeburua eta hainbat ekitaldirako –hala nola All Points East edo Rock In Seine– artistak kontratatzearen arduraduna.

Horiekin batera egongo dira honako hauek: **Fruzsina Szép**, Berlingo Lollapalooza jaialdiaren zuzendaria eta Yourope Jaialdien Elkarteko zuzendaritza-batzordeko kidea; **Alastair Lindsay**, CORD Worldwide enpresako Head of Audio-a; Kanadako Rocking Horse Road Productions enpresako sinkronizazioen eta lizentzien zuzendari **Janesta Boudreau**; **Judy Cantor-Navas**, musika latinoan espezialista den Billboard-eko korrespontsala eta kazetaria; **Karen Saurí**, CANADA produkzio-etxeko music producer-a; **Alfonso Lanza**, Primavera Sound jaialdiko zuzendarikidea; edo **Teresa Moore**, A Greener Festival jaialdiko zuzendaria.

Beste hauek ere sartu dituzte zerrendan: **Cristina Roda**, YouTube sare sozialeko Strategic Partner Manager, Artist & Labels; Primavera Sound jaialdiko artistak kontratatzeaz arduratzen den **Ivone Lesan**; **Xavi Ruiz**, Espainiako, Portugalgo eta Europa Ekialdeko Apple eta iTunes etxeetako Head of Music; edo **Carla Varona**, Sin Anestesia zigiluaren zuzendaria eta UFI (Unión Fonográfica Independiente) elkarteko presidentea eta **Sonia Durán**, UFI elkarteko Executive Manager-a.

Eta azken iragarpenen artean, aldiz, honako hauek daude: Nerea Lorón aka **La Furia** abeslaria; Donostiako Dabadaba klubeko programatzaile **Alejandro López**; eta **Eva Rivera**, Dock of the Bay musika-dokumentalen zikloaren zuzendaria.

Iaz konpromisoa sinatu genuen PRS Foundation enpresaren **Keychange** proiektuarekin, 2022. urtetik aurrera artista-zerrenda erabat parekideak programatzeko helburuari jarraikiz; aurten ere, BIME PROk ekimenean parte hartzen jarraituko du, datozen 4 urteotan luzatuko den bigarren fasean, eta 1,4 milioi euroko finantzaketa jaso du proiektuak fase horretarako, EBren aldetik.

Horretaz gain, BIME PROk **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.

Prentsako akreditazioak

Gogoan izan prentsako akreditazioak eskatzeko epea urriaren 10ean amaituko dela. BIME PRO eta/edo BIME LIVE ekitaldietarako akreditazioa hemen eska dezakezu:

<https://www.bime.net/pro/eu/prentsa>